

Bizkaiko Diputazio Probintzialaren mezu elebiduna

CÉSAR GALLASTEGI ARANZABAL

Deustuko Unibertsitateko Zuzenbide Fakultateko irakaslea

1. SARRERA: HERRI ERAKUNDEAK ETA EUSKARA. 2. DIPUTAZIO PROBINTZIALAREN 1877KO MEZUA: TESTUINGURUA ETA ESANAHIA. 3. TESTU ELEBIDUNAREN IRAGARPENA. 4. EUSKARAZKO TESTUAREN AURKIKUNTZA. 5. TESTUAREN TRANSKRIPZIOA. 6. IRUDIAK

1. SARRERA: HERRI ERAKUNDEAK ETA EUSKARA

Zuzenbidearen Euskal Akademiako aldizkariaren zenbaki hau Javier Oleaga gure kide eta idazkari ohiari eskainita dagoenez, berak gustuko zituena bi alderdi biltzen dituen gai bat hautatu dut. Batetik, gure berezko erakunde publikoak, testu honetan Bizkaiko Diputazioak ordezkatuta, aztertuko dugun une historikoan agintaritza gorena baitzen. Bestetik, euskara¹, aurretik aipatu dugun erakunde horrek egin eta bizkaitar guztiei zuzenduta dagoen testu idatzi batean agertzen dena. Azken finean, gure berezko erakunde juridikoak eta euskara Javierri gehien interesatzen zitzaizkion gaie-tako bi ziren, eta, beraz, artikulua honetan bildu nahi izan ditugu.

Artikulu honek, gainera, artikulua egileak eta Zuzenbidearen Euskal Akademiako beste kide batzuek euskarak XIX. mendean Bizkaiko erakunde publikoetan zuen presentziari buruz egindako ikerketa osatzen du. Lan horren emaitza izan zen 2003an argitaratutako lana, *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskera: 1833-1877. Euskarazko testuen bilduma eta azterketa*². 2004an, Zuzenbidearen Euskal Akademiaren aldizkari honetan,

¹ Javierrek euskara ikasteko zuen interesaz gain, gogoan izan behar dugu Nazario Oleagaren semea zela. Nazario legelaria izan zen (baita semeak eta ilobak ere), eta euskararen sustatzailea (esaterako, Euskaltzaindiaren idazkaria gerraostean; ikusi *Bidegileak* izeneko bildumaren 34. zenbakiko karpeta, legelari euskaldunei eskainia, Andres Urrutiak prestatua 2004. urtean).

² Andres Urrutia (zuz.), Alberto Atxabal, Cesar Gallastegi, Eba Gaminde, Gotzon Lobera, Aitziber Urkiza eta Esther Urrutia: *Bizkaiko Batzar Nagusiak eta euskera: 1833-1877. Euskarazko testuen bilduma eta azterketa*, Bizkaiko Batzar Nagusiak, Bilbo, 2003. Liburu hori argitaratu aurreko ikerketa lana Deustuko Unibertsitateko Euskal Gaien Institutuan egin zen, Bizkaiko Batzar Nagusien babespean.

«Presencia histórica del euskera en las Juntas Generales de Bizkaia»³ izeneko artikulua argitaratu genuen, lehen aipatutako liburuaren edukiaren laburpena.

Lan horietan gerra karlistaren hasieraren eta Gernikako Bizkaiko Legebiltzarraren amaierara arteko berrogei urteak aztertzen ziren. Urte horietan, euskarak bizitza publikoan zuen egoera asko hobetu zen. Laburbilduz, Batzarren bilkuretan euskararen erabilera esanbidez arautzeaz gain, euskaraz idatzitako testuak agertu ziren Batzar Nagusien aktetan txertatuta. Jarraian aurkezten dugun testua geroago kokatzen da, Bizkaian foruak abolitu ziren etaparen hasieran hain zuzen.

2. DIPUTAZIO PROBINTZIALAREN 1877KO MEZUA: TESTUINGURUA ETA ESANAHIA

Testuaren esanahia ulertzeko, bigarren gerra karlistaren amaieran kokatu behar gara. Alderdi liberalak garaipena lortu zuen, eta oraingoan ez zen itunik egon. Horrela iritsi zen 1876ko uztailaren 21eko legea, foruak abolitu zituena. Batzar Nagusiek legearen aurrean protesta egitea eta legea indargabetzea eskatzea adostu zuten. Bizkaiak erabaki zuen Diputazioak inola ere ez zuela lagundu behar legea aplikatzen. Gobernuak Euskal Herrian okupazio militarra zuen, eta presio handia egin zuen foruen defentsaren aurka.

Bizkaiak amorerik eman ez zuenez, Gobernuak 1877ko maiatzaren 5eko Dekretua eman zuen, Batzar Nagusiak eta Foru Diputazioa abolitzeko. Diputazioaren ordeztu, probintzia izaerako bitarteko aldundi bat ezarri zen, eta bertako kideak dekretu bidez izendatu ziren. Diputazio berri horrek, foru adjetiboa kenduta, bizkaitarrei zuzendutako mezu batekin hasi zuen ibilbidea, bere burua zuritu nahian.

³ GALLASTEGI, César: «Presencia histórica del euskera en las Juntas Generales de Bizkaia», *Boletín de la Academia Vasca de Derecho-Zuzenbidearen Euskal Akademia*. Aldizkaria, Bilbo, 3-2004, 28-44 or.

Horrela kontatu zuten garai hartako prentsan⁴:

Ayer a las once de la mañana, según anunciamos, dio posesión el señor gobernador civil de la provincia del nuevo cargo de Diputación provincial a los señores cuya lista publicamos en nuestra número del domingo.

Al resignar sus puestos en virtud de dicho acto, los señores diputados segundos, en funciones de primeros don Benigno de Salazar y don Mario Adan de Yarza causaron la protesta consiguiente en nombre del país que les llamó a empuñar las riendas de su destino.

A su vez la nueva Diputación provincial creyó de alta conveniencia dar a Vizcaya un Manifiesto, explicando las poderosísimas razones que les han impuesto, en aras del suelo que con fervoroso delirio aman, el sacrificio de aceptar tan penoso cargo en las críticas circunstancias por que atravesamos.

Procuraremos adquirir dicho importante documento para facilitárselo a nuestros lectores.

Eta orrialde berean, aurrerago:

Ayer, al anochecer, se fijó en los sitios de costumbre el siguiente Manifiesto que la nueva Diputación provincial ha dirigido al tomar posesión de su cargo: [jarraian Diputazioaren mezuaren gaztelaniazko testua dator]

Egun batzuk geroago, hau irakur zitekeen⁵:

La alocución de la Diputación provincial de Vizcaya, conocida de nuestros lectores, se publicó en Durango el jueves último por el pregonero del pueblo, previos los toques del tambor municipal, según se acostumbra en los bandos del ayuntamiento de aquella villa.

⁴ *El Noticiero Bilbaino*, 1877ko maiatzaren 6a, 2. or.

⁵ *El Noticiero Bilbaino*, 1877ko maiatzaren 19a, 2. or.

3. TESTU ELEBIDUNAREN IRAGARPENA

Bizkaiko Diputazio Probintzialaren lehen bileran –1877ko maiatzaren 15ean egin zen–, kideek bizkaitarrei zuzendutako adierazpena idaztea erabaki zuten. Hain zuzen ere, artikulua honetan adierazpen horren euskarazko bertsioa aztertuko dugu. Korrejidorearen diskurtsoen eta XIX. mendeko gertaera handien aurrean bizkaitarrei zuzendutako beste hitzaldi batzuen itzulpenen oinordekoa da testua. Hau esaten da Diputazioaren aktetan⁶:

El Sr. Presidente D. Manuel de Gortazar indicó a la Diputación la conveniencia de que se hiciera saber al país las razones por las que habían los Diputados aceptado sus cargos y por unanimidad, se acordó la publicación del siguiente manifiesto que impreso en castellano y traducido al vascuence se hiciera circular por todos los pueblos de la provincia.

Esan beharrekoa da gaztelaniazko jatorrizko testua aktetan agertu zela –bai urte bereko jatorrizko eskuz idatzitako bertsioan⁷, bai 1893ko inprentako edizioan⁸–, kartel moduan inprimatu zela⁹ eta kopiatuta agertu zela prentsan (*El Noticiero Bilbaino* egunkariko adibidea aipatu dugu) eta garaiko lanetan (adibide bat ipintzearen, *La abolición de los fueros e instituciones vascongadas*, José María de Angulo y Hormazarena, 1886an argitaratua). Euskarazko bertsioa, berriz, ez dator aktetan.

4. EUSKARAZKO TESTUAREN AURKIKUNTZA

Esan bezala, Diputazio berriaren mezuaren euskarazko testua, aldiz, ez da aktetan agertzen –baina itzulpena iragartzen da, eta horregatik daki-

⁶ Akten liburuaren 6. eta 7. orrialdeak (Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: Bizkaiko Administrazio Atala; Gobernua eta Eliza Kontuak azpiatala; AJ 490/1 signatura).

⁷ Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: Bizkaiko Administrazio Atala, Gobernua eta Eliza Kontuak azpiatala, AJ 275/1 signatura.

⁸ Lehen esan bezala, Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: Bizkaiko Administrazio atala; Gobernua eta Eliza Kontuak azpiatala, AJ 490/1 signatura.

⁹ Ikusi aurrerago xehetasun gehiago.

gu euskarazko testua dagoela (edo egon zitekeela)—, eta beste inon ez dugu irakurri testuari buruzko ezer. Euskarak XIX. mendean Bizkaiko erakundeetan zuen erabilerari buruzko ikerketa prestatu genuenean, testu hau ez zen agertu.

Hala ere, gerora egindako lanei esker, euskarazko testuaren berri izan dugu. Beraz, Diputazioaren agindua bete egin zen: testua itzuli, inprimatu eta herrietatik banatu zen. Hasteko, Euskaditik kanpo kokatutako artxibo bat aipatuko dugu, Artxibo Historiko Nazionalako Noblezia Atala, gaur egun Toledon kokatuta dagoena¹⁰. Ondoren, Bizkaiko Foru Agiritegira itzuliko gara, bertan baitaude bai Bizkaiari dagozkion funtsak, bai udalerrri batzuen funtsak.

a) Artxibo Historiko Nazionala: Noblezia Atala

Nobleziari buruzko artxiboa osatzen duten funtsen artean, Torrelaguna familiaren funtsak daude, hain zuzen, *Archivo de los Marqueses de Torrelaguna* izenarekin. Bertan Bizkaiari dagozkion hainbat eta hainbat dokumentu daude, horietako asko XIX. mendekoak. Bada, horien artean, Diputazioaren mezu elebiduna dugu¹¹.

b) Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: Bizkaiari dagozkion funtsak

Bizkaiko funtsetan bi erreferentzia aipatu behar ditugu (aurretik aipatutako Diputazioaren aktez gain, eskuzkoak¹² nahiz inprimatutakoak¹³):

¹⁰ Espainiako Artxibo Historiko Nazionalaren atal bat da, baina Madrilgo egoitzatik kanpo kokatuta dago.

¹¹ Signatura: Torrelaguna, C. 29 D. 16 (hau da, 29. kutxa, 16. dokumentua). Beste kontu bat da zergatik dauden horrenbeste euskal dokumentu bertan. Kartelak gaur egungo DIN A3 baten neurriak ditu (erdaraz zein euskaraz).

¹² Lehen esan bezala, Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: Bizkaiko Administrazio atala, Gobernu eta Eliza Kontuak azpiatala, AJ 275/1 signatura.

¹³ Aurretik adierazi bezala, Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: Bizkaiko Administrazio atala, Gobernu eta Eliza Kontuak azpiatala, AJ 490/1 signatura.

Batetik, espediente bat¹⁴ aipatuko dugu; bertan, bi agiri agertzen dira. Bata, bizkaitarrentzako mezua kartel formatuan eta erdaraz hutsez. Bestea, mezuarekin batera Diputazio Probintzialak udalei igorritako ofizioa, mezua zabaltzea eskatuz. Ofizioak Diputazio Probintzialaren bileraren eta mezuaren data bera du, hau da, 1877ko maiatzaren hamabosta. Honela dio:

Esta Diputacion provincial interina, remite á V. adjuntos dos ejemplares de la alocución que ha acordado dirigir al País, á fin de que uno de ellos se sirva fijar en el sitio público de costumbre, y lleguen á noticia de todos los habitantes de esa localidad los sentimientos en que la misma Diputación se inspira.

Bestetik, Diputazioak Bizkaiko udalerrietara bidalitako agirien bilduma bat¹⁵ aipatu behar dugu. Kasu honetan, lerro batzuk gorago aipatu diren bi dokumentuak agertzen dira (hau da, kartela gaztelaniaz eta ofizioa), baina hemen euskarazko kartela agertzen da.

c) Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: udal agiritegiak

Udal funtsei dagokienez, logikoa da pentsatzea horietakoren batean Diputaziotik jasotako euskarazko testua egon daitekeela. Eta hala da. Esaterako, Turtziozko udal agiritegian¹⁶, –Bilbon itxita dagoen udal agiritegietakoa batean–, euskarazko kartela dago; ia-ia miraria da, berrerabiltzeko edo birziklatzeko paper moduan erabiltzera bideratuta baitzegoen: euskarazko agiriak beste gai batzuei buruzko ohar eta apunteak ditu gaztelaniaz.

Beraz, dakigunez, administrazioaren esparruan euskaraz idatzitako testuak historian ez dira asko. Baina hemen berriro ere ikusten da ohikoa dela euskarazko testuak erabili diren kasuak ez ezagutzea, gaztelaniazko testuarekin alderatuta bigarren mailan baitzeuden. Hori dela eta, ohikoa zen euskarazko bertsioak ez artxibatzea.

¹⁴ Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: Bizkaiko Administrazio atala, Gobernua eta Eliza Kontuak azpiatala, AJ 1653/61 signatura.

¹⁵ Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: Bizkaiko Administrazio atala, Gobernua eta Eliza Kontuak azpiatala, AJ 1619/273 signatura.

¹⁶ Bizkaiko Foru Agiritegi Historikoa: Udal atala, funtsa: Trucios-Turtzioz Udalaren Agiritegia, 36/67 signatura.

5. TESTUAREN TRANSKRIPZIOA

Jarraian gaztelaniazko testua eta euskarazko bertsioa jasoko ditugu. Transkripzioa egiteko orduan ez dugu ezer aldatu: jatorrizko kartelean euskazko testua datorren moduan kopiatu dugu (erdarazkoa, berriz, eguneratu dugu). Horrenbestez, akats batzuk antzematen dira. Begi-bistako akats horiek ez ditugu zuzendu: erdarazko testua aldamenen izanda erkaketa egitea erraza da. Kontuan hartu behar da Aldundiaren mezua egun batetik bestera aurkeztu eta banatu zela; beraz, ez zegoen asti larregirik argitaratu beharrekoa zuzendu eta lan txukuna egiteko¹⁷. Estiloari dagokionez, bi testuak nahiko parekoak dira –euskarazkoa pixka bat luzeagoa¹⁸–, hirugarren lerrokadan izan ezik, hor euskaratzaileak erdarazko testuaren erretolika laburtzen du eta. Bestela, euskarazkoak oro har erdarazkoaren doinua eta tankera mantentzen ditu.

¹⁷ Akats gehienak inprentan bertan sortuko ziren ziur asko (eta ez idazlearen eskutik, jakina), izan ere, inprentetan ez zen ohikoa euskarazko lanak argitaratzea.

¹⁸ Adibide modura, erdarazko bertsioan –azken lerrokadaren hasierako esaldian– esaten da: «En otro caso, volveremos a la vida privada, satisfechos de haber hecho el esfuerzo de que seamos capaces»; euskarazkoan, berriz, nabarmen luzeago: «Alan ez paliz, jaritzen eypadoguz, viurtuco gara gueure echetara, gueugan eguana eguiñ izan guendualaco satisfacinoz onagaz, ta biotzian erru edo orbanic bague». Dena den, itzulpen lanaren balorazio xehatua ez dugu egingo.

Vizcaínos;

El deber de consagrarse al servicio y a la defensa de los altos intereses del país vascongado es más estrecho e indeclinable que nunca en los momentos críticos de la desgracia. Ese deber toma entonces el carácter de absoluta necesidad y su incumplimiento podría significar el menosprecio y el abandono de lo que más profundamente aman nuestros corazones.

Llamados a constituir la Diputación provincial en este período, el más triste, el más difícil y peligroso que acaso registre la gloriosa historia de Vizcaya, hemos vacilado un instante, al pensar que por causas de todos conocidas, acaban de desaparecer las instituciones especiales del país; pero en seguida se han presentado a nuestra vista las consecuencias inmediatas e inevitables de tan lamentable suceso, si abandonásemos a manos extrañas la gestión de los intereses de Vizcaya, y lo irreparable de esta desventura, si con ánimo sereno, no procurásemos disminuir sus funestas consecuencias, ya que no sea dado evitarlas enteramente.

VIZCAYTARRAC:

Euskalherrijaren interes edo oneraric jasuenac gordeteco, eguiñ biar dirian aleguiñac dira, dudatzaca, iñoz baño estu ta ichi esin laiquesanac adu char edo desgracijaco une edo momentuetan. Orduan, obligaciñoz edo eguiquzunac biurtzen dira derrigorrecuac, ta nai eta naiezcuac; eta ez cumpliu edo ez betetiac, adieratzoten emon leique gure biotzac gueijen maite dituzan gauzac, despreciau edo albo batera ichi ta bastertuten diriala.

Zuen Diputaciñoed edo aguintari arduratsuc izatera, deitu deuzque era onetan, menturaz Vizcayco historijac edo jasoerac cembatuten ez dituzen aiñ illun, aiñ gach ta aiñ charretan; cer eguiñ ez daquigula egon gara une batsuetan, gogoraturic, guztijoc daquizuen lez, aldendu edo quenduric gueratu diriala gure Baster maitiaren izatea berarizco, jaubetazun ta Foruac. Baña; Ecingüan aguertu dira gure beguijen aurrian, guertaera negargarizco onetatic etorri leiquezan ondamendi ta calte icaragarrijac, baldiñ Vizcayco ondasunen gobernu edo zucenbidia, et gaur erremedijan esin leiquezan desgracija edo zorichar onec, ichico baguenduz erbestecuen escu ta menpian, eta aleguiñ guztijac eguiñ бага ariñdu ta guichituteco edolabere ijequeta eragotu ez guelditu esin guiñajan guztijacozoro.

Todo esto que en resumen viene a formar nuestro convencimiento de que podemos evitar graves males al país vizcaíno, y además la consoladora esperanza de conseguir positivas ventajas fruto de nuestros esfuerzos, nos ha obligado a hacer, en aras de Vizcaya el sacrificio de ocupar estos difíciles puestos, teniendo por norma de patriótica conducta que el bien y la salvación de Vizcaya debe ser, en cada momento, el único criterio con que han de fijarse las ideas y determinarse los actos de sus buenos hijos.

Algunos de nosotros hemos intervenido en los asuntos del país, y nuestros antecedentes son la mejor garantía de nuestros propósitos: dentro del régimen foral y en momentos históricos determinados, hemos dado al país leales consejos, encaminados a la defensa de sus derechos, que ha sido y será siempre nuestra aspiración más ardiente y más inquebrantable. Con ella venimos a formar parte de esta Corporación y podéis estar firmemente seguros de que cualesquiera que sean los medios que las circunstancias pongan en nuestra mano, el fin, a que siempre se encamina nuestra constante voluntad, no será jamás otro que la salvación de los intereses y derechos del país vascongado.

Todos hemos ocupado este puesto unidos en esta suprema aspiración. Al aceptarle, seguimos el consejo unáni-

Pensauric Vizcayja aldeudu ta librau guñajela gach ta calte ascotatic, artudituguz cargu ta cereguñ astun onec, bere onera ta mesederaco uste ozuan, eta euquiric goguan Vizcayco seme lejjac guztijen arduraric andijena izan biar dabela, bera gordeta salvetia.

Gure lagunetic batsuec Vizcayjaren gobernu edo zucen-vidian lenago bere ezagunac dira, ta gure obra ta eguitadiac dira gure asmo ta gogo onaren señaie ciur ta aguirijac, eta gure Foruac oñian aurquitzen zirian artian, era jaquiñian emon izan deutzaguz Vizcayjari, eurac gordeteco seguric lejjalenac ta laguntasunic zintzuenac, zeñ izan dau, ta izango dau gure gurari ta arduraric andijeña. Asmo garvi onecaz batu gara Provincija onetaco Diputaciñoia formau edo eguiteco; eta egon zinaitez ciur ta seguru, dirianac diriala gure escuetara etorri leiquezan era ta neurri guztijac, zuzenduac izango diriala Vizcayjaren onerata equitazunac dalvau edo gueuganautera.

Guztijoc bada artu dogu carga astun au, gucoi bizcarraren gañian, asmo santu onegaz. Onetaraco, jarraitu

me de las personas mas autorizadas, e imitamos el ejemplo de los más distinguidos vascongados que, en azarosos instantes, no negaron a Vizcaya el sacrificio de todo lo que pudiera privarla de sus relevantes servicios.

Como ellos venimos a servir, en esta aciaga crisis, los intereses de Vizcaya, y no a otra cosa alguna. Si se realizan nuestras esperanzas ofreceremos a nuestro querido País algunas ventajas, por fruto de nuestro empeño. En otro caso, volveremos a la vida privada, satisfechos de haber hecho el esfuerzo de que seamos capaces. Cualquiera que sea el éxito que la Providencia depare a nuestros designios, no ha de negarnos esta noble tierra el justo reconocimiento de la intención salvadora que nos dirige.

Bilbao, 15 de mayo de 1877.

El presidente, Manuel María de Gortázar.

El vicepresidente, Eduardo Coste y Vildósola.

Comisión permanente [...]

deutsagu gizon argui ta jaquintsuen, baita bere Vizcaytar onen ta sanuen conceju ta ejamplari zeinzuec, arturic gue lez cargu astun au, oraiñlaco dempora estu ta larrijetan, es eben atserapenic euqui, ez aleguiñic eguiñ baric ichi, edoceiñ sacrificijo edo euren indar guztijac ipiñteco Vizcaijaren gordetasun ta provechuan.

Eurac lez gatoz gic bere, aldogun guztija eguitera; gatoz, dempora triste ta estu onetan, Vizcayco interes edo jaubetasunac al bait onduen, zaindu, gorde, ta escuratutera; eta ez iño-lazbere beste gauza gaitic. Gure ustiac, ta icharopen onec baldiñ bete tu ozotuco balitiaquez, esquiñico deuntsaguz orduan gure Vizcay argui ta matiari, gueure aleguiñen ta izerdijen frutua lez, obari edo ventaja batsuec. Alan ez paliz, jaritzen ezpadoguz, viurtuco gara gueure echetara, gueugan eguana eguiñ izan guendualaco satisfacinoz onagaz, ta biotzian erru edo orbanic bague. Dan moduan dala, Jaungoicuaeren Providencia edo Gurasotasunac emon dozcn suertia ta adua, ez dogu uste ucatu dozcula Lur noble ta argui onec, cargu onec artuteco euquititugun asmo on ta gogo zintzua- ren ezaguera justu edo zuzena.

Bilbon Maizaren 15 1877 garren urtian.

Presidentia, Manuel Maria de Gortázar.

Vice-Presidentia, Eduardo Coste ta

Vildósola. Comisiñoë Egunerocua. [...]

6. IRUDIAK

Jarraian, aipagai dugun testuaren argazkiak doaz (bai gaztelaniazko bertsiorena, bai euskarazkoarena).

